



GALLARTA ASEGURU-JARDUERARIK GABEKO ERAKUNDE BEREIZI GABEAREN EZOHIKO BATZAR OROKORRERAKO DEIALDIA 2025ko URRIAK 22

Bazkide agurgarria:

Honen bidez, **Gallartako aseguru-Jarduerarik gabeko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakunde bereizgabearen** behin-behineko Gobernu Batzordeak, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspeneko zuzendariaren 2025eko maiatzaren 30eko Ebazpenaren bidez izendatuak, dei egiten dizu **Serantes Kultur Aretoa** (Gabriel Aresti Kalea, s/n, 48980 Santurtzi) 2025eko urriaren 22ean, 18:00etan lehenengo deialdian eta 18:30ean bigarren deialdian egingo den Batzar Orokorrera.

Ezohiko batzar orokorraren lekua Santurtzira aldatzeko arrazoia, aurrekoarekin alderatuta, Gallartan bertan dauden alternatibetan edukiera nahikorik ez egoteagatik eta segurtasun-arrazoiengatik izan da, horrelako ekitaldiak egiteari lotutako arlo horretako betebeharrak kontuan hartzeagatik.

Gai zerrenda:

1. Erakundearen bilakaeraren azalpena, aurreko 2025eko uztailaren 15eko ezohiko batzar orokorra egin zenetik.
2. Gallartako Zuzendaritza Batzordea ordezkatzeari erabakitzen duen Finantza Politikako eta Gizarte Aurreikuspeneko zuzendariaren 2025eko maiatzaren 30eko Ebazpenaren bidez izendatutako behin-behineko Gobernu Batzordeak egindako jarduerak berrestea. Egun horretatik aurrera gertatutako kontingentzietan erantzutea.
3. Gallarta BGAEko bazkideek osatutako hautagaitza aurkeztea, Gobernu Batzorde berri bat eratzeke, Erakundeari jarraipena emateko.
4. Batzarrak BGAEak bazkideen hautagaitza berriarekin jarraitzea onartzen bada, sartzeko den Batzar berriak kuoten proposamen berri bat aurkeztuko du. Bazkide bakoitzeko 100 euroko isuria, 2025eko abenduaren 15a baino lehen ordaindu beharrekoa.
5. Batzarrak **EZ** badu onartzen Gobernu Batzorde berria osatzeko bazkideen hautagaitza, honako hauei buruz erabaki eta bozkatu beharko du:
 - a. Heriotzagatik prestazioaren estaldurak jarraitzea, Basauriko San Pedro Apostoluaren Erakunde Bereizgabearen Gobernu Batzordeak egindako proposamena onartuz. Aukera hori onartzen ez bada, b) puntura pasatuko da.
 - b. Erakundea desegiteko eta likidatzeko prozedura.

6. Akta onartzea
7. Galde-eskeak

Batzar Orokor honetan aztertu beharreko gaien garrantzia dela eta, bertaratzeko eskatzen dizugu, eta, joaterik ez baduzu, botoa beste bazkide bati eskuordetzeko, BGAEei buruzko urriaren 27ko 203/2015 Dekretuaren 8.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, bidali urriak 21an. Alde horretatik, bozketaren zenbaketa errazteko, botoa batzar orokorrean beste pertsona baten esku utzi nahi baduzu, ordezkartzaren kopia bat jakinarazi beharko duzu:

1. gutun bidez, helbide honetara bidaliz:
Gallarta, BGAEren behin-behineko Gobernu Batzordea EUSKO JAURLARITZA - Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspeneko Zuzendaritza Donostia kalea 1 01010, Vitoria-Gasteiz
2. Edo posta elektronikoko helbide honetara: epsv@euskadi.eus, postaren gaiari "botoa eskuordetzea" adierazita.

Eskuordetza hori, gutunez edo posta elektronikoz, Batzar Nagusia egin baino **24 ordu lehenago bidali beharko da gutxienez, eta bertan botoa nork emango duen adieraziko da** (izena eta NAN).

Deialdi honi lotutako dokumentazioa eskuratzeko, esteka hau erabil daiteke: https://www.euskadi.eus/informacion/epsv_informacion/web01-a2finan/es / Ogasun eta Finantza Sailaren webgunean dago eskuragarri, Gizarte Aurreikuspenaren ataleko Informazio Orokorraren atalean.

Interesatuei eskatzen zaie behar besteko aurrerapenaz joan daitezela bazkideen erregistro egokia eramateko.

Urriaren 22an Gallartako BGAEaren ezohiko batzar orokorrera joan nahi duten udalerriko bizilagunak garraio publikoaren esku jartzea aurreikusten da.

Autobusen ibilbideari eta ordutegiari buruzko informazioa, uztailan Erankundeari buruzko informazioa argitaratutako web-orrian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriak 7